


## Euskal AEko I+G gastua BPGren %2,12 izan zen 2012an, %0,5 hazirik

**Dedikazio osoan ari diren langile okupatuak %4,5 gehitu dira 2011ren aldean**

Ikerketa Zientifikoa eta Garapen Teknologikoa (I+G) Euskal AEn: 2012an, Euskal AEn guztira 1.372,9 milioi euro inbertitu ziren Ikerketa Zientifiko eta Garapen Teknologikoko (I+G) jardueretan, aurreko urtean baino %0,5 gehiago, EUSTATEk landutako datuen arabera.

BPGrekiko, Euskal AEko I+G gastua %2,12 izan zen 2012an, aurreko urtean baino lau ehunen gehiago. Ez dago Espainia eta 27-EBko 2012ko daturik, baina halere Euskal AEko BPGrekiko I+G gastua sistematikoki izan da Espainiako batez bestekoaren gainetik, eta tartea handituz joan da azken urteetan. 27-EBko zifrekiko, 2010ean Euskal AE Europar Batasuneko batez bestekoaren gainetik jarri zen.

1 Grafikoa: I+Gko gastuaren bilakaera, BPGrekiko. (%)



Langile enplegatuak, dedikazio osoko baliokidetzan (DOB), 18.682 pertsona, %4,5 hazirik aurreko urtearen aldean; euskal ekonomiaren lanpostu baliokideen %2,08. Egikaritza sektoreen arabera, 13.440 pertsona Enpresetan, 4.058 Goi Mailako Irakaskuntzan eta 1.184 Administrazio Publikoan. Langile hauen artean, 11.772 dedikazio osoko ikertzaileak dira; aurreko urtearen aldean %4,3 gehitu dira, eta horrela daude banatuta: 7.652 Enpresetan, 3.534 Goi Mailako Irakaskuntzan eta 586 Administrazio Publikoan.

**1 Taula: Gastuaren eta pertsonalaren bilakaera (DOB) Euskal AEn. 2005-2012**

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
<b>I+G GASTUAK</b>								
Guztira (Milioi euro)	<b>823,5</b>	<b>907,7</b>	<b>1.090,3</b>	<b>1.263,9</b>	<b>1.280,9</b>	<b>1.360,3</b>	<b>1.366,2</b>	<b>1.372,9</b>
Urteko gehikuntza (%)	7,1	10,2	20,1	15,9	1,3	6,2	0,4	0,5
BPGaren aldean (%)	1,45	1,48	1,65	1,87	2,00	2,09	2,08	2,12
<b>PERTSONALA (DOB) *</b>								
Guztira	<b>12.506</b>	<b>13.065</b>	<b>14.435</b>	<b>15.373</b>	<b>16.690</b>	<b>17.532</b>	<b>17.879</b>	<b>18.682</b>
Urteko gehikuntza (%)	4,9	4,5	10,5	6,5	8,6	5,0	2,0	4,5
Lanpostu baliokideekiko (‰)	13,4	13,7	14,7	15,6	17,7	18,8	19,4	20,8
<b>Ikertzaileak (DOB) *</b>								
Guztira	<b>7.820</b>	<b>8.145</b>	<b>9.220</b>	<b>9.640</b>	<b>10.386</b>	<b>11.071</b>	<b>11.283</b>	<b>11.772</b>
Urteko gehikuntza (%)	5,5	4,2	13,2	4,6	7,7	6,6	1,9	4,3
Lanpostu baliokideekiko (‰)	8,4	8,5	9,4	9,8	11,0	11,9	12,2	13,1

\*DOB: dedikazio osoko baliokidetza

**Iturria:** Eustat. Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko (I+G) jardueren estatistika

**I+G langileen %34,7 emakumezkoak dira**

I+G langileen arteko 6.474 emakumeak dira; I+G jardueretan emakumeek duten parte hartzearen ehunetik handienak Administrazio Publikoan eta Goi Mailako Irakaskuntzan, ditugu: %53,3 eta %49,5. Enpresetan %28,5.

**Euskal AEn egindako I+G gastuaren %75,8 enpresa-sektorean egikaritu zen**

**Egikaritze-sektoreei dagokienez**, enpresek I+G gastuaren %75,8 (1.041,2 milioi) egikaritu zuten; %17,9 (245,1 milioi) Goi Mailako Irakaskuntzara bideratu zen, eta gainerako %6,3 (86,6 milioi) Administrazioaren mendeko zenbait organismo publikok egikaritu zuten.

Enpresa sektoreak jarraitzen du izaten ikerketa-ahaleginik handiena egiten duena, baina 2 hamarren gutxiagoz. Goi Mailako Irakaskuntzaren portzentajea lehengoan da Administrazio Publikoaren pisua 2 hamarrenez gehitu da.

**2 Taula: I+Gko gastuak egikaritze sektoreen arabera (%)**

	Euskal AE			Espainia	Europako Batasuna 27
	2010	2011	2012	2011	2011
Enpresak eta IAGEP	76,5	76,0	75,8	52,3	63,3
Herri administrazioa	6,3	6,1	6,3	19,5	12,7
Goi-mailako irakaskuntza	17,2	17,9	17,9	28,2	24,0

Alde handia dago Espainiako emaitzen aldean: enpresek I+G gastuaren %52,3 egikaritu zuten, Goi-mailako irakaskuntzak %28,2 eta Administrazio Publikoak %19,5. 27-EBko batez bestearekiko, egitura bestelakoa da, baina antzekoagoa.

**Enpresek jarduera-sektoreen arabera eginiko I+G gastuaz**, %43,1 industrian kontzentratu zen 2012an, %54,1 zerbitzuetan eta %2,8 eraikuntzan eta lehen sektorean. Industri enpresetan zentratuz, nabarmentzekoak dira, barne I+Gz ari garela, ondoko jarduera adarrak: Garraio materiala (%8,9), Beste makineria (%6,5), Metalezko artikuluak (%4,7).

Zerbitzu-enpresetan, I+G jarduerak (%36,1) eta Beste enpresa-jarduerak (%9,7) dira baliabiderik gehien bideratzen dizkietenak I+G barne gastuari.

Euskal zientzia, teknologia eta berrikuntza sareko **Zentro Teknologikoen** pisuaz, 2012ko gastua, 222,9 milioi, guztiaren %16,2; dedikazio osoan 2.877 pertsona ari dira, %15,4. 2011ko datuekiko, gastuak behera egin du %3,6 eta enpleguak gora %1,6.

**I+G gastuaren finantzaketan**, portzentajeak aurreko urteetako antzekoak dira. Finantzaketa pribatuak, enpresen bidez, 767,4 milioi bideratu zituen ikerketara, guztiaren %55,9; finantzaketa publikoak 493,0 milioi, %35,9; goi-mailako irakaskuntzak 34,7, %2,5; atzeritiko funtsek %70,9 milioi, %5,2; irabazi-asmorik gabeko zenbait erakundek, 5,9 milioi, %0,5.

---

**Informazio gehiago:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prentsa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62*

*Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko (I+G) jardueren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago*

*Euskal AEko ikerketa eta garapen teknologikoko (I+G) jardueren estatistikari buruzko datu bankua*